



**GIZARTE ONGIZATEKO EUSKAL KONTSEILUAREN OSOKO BILKURAREN AKTA/
ACTA DEL PLENO EXTRAORDINARIO DEL CONSEJO VASCO DE BIENESTAR SOCIAL**

**(Reunión del día 13 de diciembre de 2007)
(2007ko abenduaren 13ko bilera)**

Borrador/Zirriborroa

Dei-egilea:

Presidentea: Javier Madrazo Lavín jauna.- Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburua.

Bertaratuak:

Javier Madrazo Lavín jauna.- Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburua.

Fernando Consuegra Revuelta jauna.- Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarte Zerbitzuetako sailburuordea.

Carmen Vicioso Etxebarria andrea.- Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarte Ongizateko zuzendaria.

Isabel Paredes andrea.- Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarte Ongizateko Zuzendaritzako teknikaria.

Patricia Arratibel andrea.- Osasun Sailaren Ikerlan eta Garapen Sanitarioko zuzendaria.

Jesús Antonio Pérez Arrospide jauna.- Kultura Saila.

Sonia Samaniego Soto andrea.- Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Etxebizitza eta Arkitektura zuzendaria.

Arantza Quiroga andrea.- Eusko Legebiltzarreko Lan eta Gizartekintzako Batzordea.

Covadonga Solaguren andrea.- Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politika eta Gizarte Zerbitzuen diputatua.

Juan María Aburto jauna.- Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintzako Diputatua

Convoca:

Presidente: D. Javier Madrazo Lavín.- Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales.

Asistentes:

D. Javier Madrazo Lavín.- Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales.

D. Fernando Consuegra Revuelta.- Viceconsejero de Asuntos Sociales del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales.

Dña. Carmen Vicioso Etxebarria.- Directora de Bienestar Social del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales.

Dña. Isabel Paredes.- Técnico de la Dirección de Bienestar Social del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales.

Dña. Patricia Arratibel.- Directora de Estudios y Desarrollo Sanitario del Departamento de Sanidad.

D. Jesús Antonio Pérez Arrospide.- Departamento de Cultura.

Dña. Sonia Samaniego Soto.- Directora de Vivenda y Arquitectura del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales.

Dña. Arantza Quiroga.- Comisión de trabajo y acción social del Parlamento Vasco.

Dña. Covadonga Solaguren.- Diputada de Política Social y Servicios Sociales de la Diputación Foral de Álava.

D. Juan María Aburto – Diputado de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia

Iñigo Pombo Ortiz de Artiñano jauna.- Bizkaiko Foru Aldundiko Gizartekintza Saileko Haur, Emakume eta Pertsona Ezinduen zuzendari nagusia.

D. Iñigo Pombo Ortiz de Artiñano.- Director General de Infancia, Mujer y Personas con Discapacidad del Departamento de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia.

Juan Ramón Larrañaga jauna.- Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuaren Ezinduen eta Adinduen Laguntzako zuzendari nagusia.

D. Juan Ramón Larrañaga.- Director General de Atención a la Dependencia y Personas Mayores del Departamento de Política Social de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Lourdes Idoiaga andrea.- EUDEL. Oñatiko Udala.

Dña. Lourdes Idoiaga.- EUDEL. Ayuntamiento de Oñati.

Begoña Gil andrea.- EUDEL. Bilboko Udala.

Dña. Begoña Gil.- EUDEL. Ayuntamiento de Bilbao.

José Manuel Odriozola Azurmendi jauna.- Euskadiko Pentsiodun eta Erretiratuen Probintzia Elkarteetako Lurralde Federazioa.

D. José Manuel Odriozola Azurmendi.- Federación Territorial de Asociaciones Provinciales de Pensionistas y Jubilados del País Vasco.

Joseba Palacios jauna.- Euskal Gorrak pertsona gorren Euskal Federazioa.

D. Joseba Palacios.- Federación Vasca de Personas Sordas - Euskal Gorrak.

Igor Navarro Brea jauna.- Euskal Autonomia Erkidegoko Urritu Fisikoen Konfederazio Koordinatzailea.

D. Igor Navarro Brea.- Confederación Coordinadora de Personas con Discapacidad Física de la CAPV.

Igor Mera jauna.- Euskadiko Gazteriaren Kontseilua.

D. Igor Mera.- Consejo de la Juventud de Euskadi.

Pedro Fernández García jauna.- Ezintasun intelektuala dutenen aldeko Elkarteetako Euskal Federazioa (FEVAS).

D. Pedro Fernández García.- Federación Vasca de Asociaciones a favor de personas con discapacidad intelectual (FEVAS).

Rosalía Sánchez andrea.- Gaixo Psikikoen eta haien Senideen Elkartearen Euskadiko Federazioa (FEDEAFES).

Dña. Rosalia Sánchez.- Federación de Euskadi de Asociaciones de Familiares y Enfermos Psíquicos (FEDEAFES).

Lucía Linares andrea.- Aireratu Euskadiko emakume alargun eta erretiratuen Federazioa.

Dña. Lucía Linares.- Federación de mujeres viudas y jubiladas de Euskadi, Aireratu.

Rigoberto Jara jauna.- “Harresiak apurtuz” Etorkinen Laguntzarako GKEen Euskadiko Koordinakundea.

D. Rigoberto Jara.- Coordinadora de O.N.G.´s de Euskadi de Apoyo a Inmigrantes “Harresiak Apurtuz”.

Natalia Díez Caballero andrea.- Euskadiko familia ugarien elkarretako Federazioa.

Dña. Natalia Díez Caballero.- Federación de asociaciones de familias numerosas de Euskadi.

Karmele Acedo andrea.- Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa.

Dña. Karmele Acedo.- Confederación de Cooperativas de Euskadi.

Fermín Martín jauna.- Euskadiko gizarte-hezitzaileen elkargoa.

D. Fermín Martín.- Colegio de educadores y educadoras sociales del País Vasco.

Ana Ureta Basañez andrea.- Aldarte elkarte.

Dña. Ana Ureta Basañez.- Asociación Aldarte.

Felisa Piedra andrea.- CCOO. Euskadi.

Dña. Felisa Piedra.- CC.OO. Euskadi.

Emilia Málaga andrea – UGT Euskadi.

Dña. Emilia Málaga.- UGT. Euskadi.

Amagoia Lasagabaster andrea.- ELA Sindikatua.

Dña. Amagoia Lasagabaster.- ELA Sindikatua.

Gonbidatuak:

Javier Pérez Pérez jauna.- Euskal Autonomia Erkidegoko Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Kontseiluaren Idazkaritza Teknikoa.

Juan Fernández de Gamarra jauna.- Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseilua.

Mar Zabala andrea.- EUDEL

Jaime García Moreno jauna.- Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluaren Aholkularitza Teknikoa.

Elena Ayarza Elorriaga andrea.- Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluaren Aholkularitza Teknikoa.

Bertaratu gabeak:

Pedro M^a Otxoa Bernales jauna.- Hezkuntza sailburuordea.

José Roberto Marro Ibarra jauna.- Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Inmigrazio zuzendaria

Belén Bilbao Borde andrea.- Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Droga Gaietako zuzendaria.

Jon Landa Gorostiza jauna.- Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren Giza Eskubideen zuzendaria.

Alfredo Ispizua Zuazua jauna.- Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren Gizarte Ekonomiako zuzendaria.

Manuel Vigo jauna.- Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren Gizarteratze eta Familia sailburuordea.

Iñaki Beristain jauna.- Ogasun eta Herri Administrazioa Sailaren Ekonomia eta Plangintza zuzendaria.

Arantza Madariaga andrea.- Emakunde Emakumearen Euskal Erakundearen idazkaria.

Ricardo Barkala jauna.- EUDEL. Bilboko Udala.

Lauren Uriá jauna.- EUDEL. Aiarako Udala

Miren Amilibia Urcelay andrea.- Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Laneko Diplomatuaren eta Gizarte Laguntzaileen Elkargo Ofizialak.

Otras personas invitadas:

D. Javier Pérez Pérez.- Secretaría Técnica del Consejo para la promoción integral y participación social del Pueblo Gitano en el País Vasco.

D. Juan Fernández de Gamarra.- Consejo Vasco de Atención Sociosanitaria.

Dña. Mar Zabala.- EUDEL.

D. Jaime García Moreno.- Asesoría Técnica del Consejo Vasco de Bienestar Social.

Dña. Elena Ayarza Elorriaga.- Asesoría Técnica del Consejo Vasco de Bienestar Social.

Ausentes:

D. Pedro M^a Otxoa Bernales.- Viceconsejero de Educación.

D. José Roberto Marro Ibarra.- Director de Inmigración del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales.

Dña. Belén Bilbao Borde.- Directora de Drogodependencias del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales.

D. Jon Landa Gorostiza.- Director de Derechos Humanos del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social.

D. Alfredo Ispizua Zuazua.- Director de Economía Social del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social.

D. Manuel Vigo.- Viceconsejero de Inserción Social y Familia del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad social.

D. Iñaki Beristain.- Director de Economía y Planificación del Departamento de Hacienda y Administraciones Públicas.

Dña. Arantza Madariaga.- Secretaria de Emakunde/Instituto Vasco de la Mujer.

D. Ricardo Barkala.- EUDEL. Ayuntamiento de Bilbao.

D. Lauren Uriá.- EUDEL. Ayuntamiento de Aiala.

Dña. Miren Amilibia Urcelay.- Colegios Oficiales de Diplomados en Trabajo Social y Asistentes Sociales de la CAPV.

Blanca Estrella Ruiz Ungo andrea.- Clara Campoamor elkarte.

Dña. Blanca Estrella Ruiz Ungo.- Asociación Clara Campoamor.

Miguel Angel Ruiz jauna.- Arabako hiesaren aurkako Batzorde hiritarra.

D. Miguel Angel Ruiz.- Comisión ciudadana anti-sida Alava.

Mariola Serrano andrea.- Confebask.

Dña. Mariola Serrano.- Confebask.

Juan José Seoane jauna.- Boluntariotzaren Euskal Kontseilua.

D. Juan José Seoane.- Consejo Vasco del Voluntariado.

Bilera 2007ko abenduaren 13an goizeko 10:45ean hasi da, honako gai-zerrenda honekin:

La sesión dio comienzo a las 10:45 de la mañana del 13 de diciembre de 2007, con el siguiente orden del día:

- 1.- Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen Aurreproiektuaren aurkezpena.
- 2.- Informazioa:
 - EAEko gizarte-zerbitzuen egoerari buruzko seigarren txostena. 2004. eta 2005. urteak.
- 3.- Galde-eskeak.

1. Presentación del Anteproyecto de Ley de Servicios Sociales .
2. Información:
 - Sexto informe sobre la situación de los servicios sociales en la CAPV. Años 2004 y 2005.
3. Ruegos y preguntas.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburu Javier Madrazo Lavín jaunak ongietorria egin die bertaratuei, eta Ezohiko Osoko Bilkura hasi du.

D. Javier Madrazo Lavín, Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales da la bienvenida a las personas asistentes y da comienzo al Pleno Extraordinario.

1. puntua.- Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen Aurreproiektuaren aurkezpena eta nahitaezko txostena.

Punto 1.- Presentación e informe preceptivo del Anteproyecto de Ley de Servicios Sociales

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburu Javier Madrazo Lavín jaunak Aurreproiektuaren lantze-prozesua aurkeztu du, eta, aurreko araudiarekin alderatuta, aurrerapen nagusiak azpimarratu ditu.

D. Javier Madrazo Lavín, Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, presenta el proceso de elaboración del Anteproyecto y destaca los principales avances que supone en relación con la regulación anterior.

Gizarte Gaietako sailburuorde Fernando Consuegra Revuelta jaunak azaletik aurkeztu ditu Aurreproiektuaren testuan jasotako puntu nagusiak.

D. Fernando Consuegra Revuelta, Viceconsejero de Asuntos Sociales, presenta someramente los principales puntos recogidos en el texto del Anteproyecto.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburu Javier Madrazo Lavín jaunak hitz egiteko txandari hasiera eman dio, eta bertaratutako eragile guztiei testuan bidezkotzat hartzen dituzten ekarpenak egiteko eskatu die.

D. Javier Madrazo Lavín, Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, abre el turno de palabra e invita a realizar las aportaciones al texto que se consideren desde todos los agentes presentes.

Euskadiko familia ugarien elkarten Federazioko kide Natalia Díez Caballero andreak bere esker ona adierazi du, familiaren arloa kontseiluaren barruan dagoelako; aurkeztutako testua goraipatu du, eta horren alde bozkatu dute. Hala ere, lege berrian aurreikusiriko Sektore Kontseiluetan familia-batzorde batentzako lekua egotea interesgarria izango litzatekeela adierazi du. Bestalde, Aurreproiektu honi ez dagokion arren, Oinarritzko Errenta aldatzea komeni dela adierazi du, gaur egun bizikidetzaren unitateek 4 seme-alaba baino gehiago dituztenean oinarritzko

Dña. Natalia Díez Caballero, de la Federación de asociaciones de familias numerosas de Euskadi, manifiesta su agradecimiento por que el ámbito de la familia esté presente en el Consejo y se felicita por el texto presentado por lo que votan favorablemente al mismo. No obstante, opina que sería interesante que entre los Consejos Sectoriales previstos por la nueva ley hubiera espacio para una Comisión de Familia. Por otro lado señala que, aunque no proceda en este anteproyecto, sería conveniente modificar la Renta Básica, ya que a día de hoy deja de incrementarse el

errenta ez delako gehiago igotzen. Egoera horri erantzuteko, prestazio ekonomikoen 16. artikuluan seme-alaba kopuru handia duten familientzako konpentsazioko laguntza ekonomiko bat gaineratu daitekeela uste du. Azkenik, eta Guraso Bananduen Federazioaren izenean, egin zituzten ekarpenak gaineratzea eskertu du.

Euskadiko gizarte-hezitzaileen Elkargoko kide Fermín Martín jaunak Aurreproiektua lantzeagatik poza adierazi du, eta, horregatik, horren alde bozkatu dute. Hala ere, beren kezka eta etsipena adierazi dute, Aurreproiektuan gizarte-hezitzaileen figurari eta gutxieneko gisa ezartzen ziren ratioei egiten zitzairen erreferentzia desagertu delako. Aldaketa hori eragin duten arrazoen justifikazio bat jasotzea gustatuko litzaike, aurreko zirriborroetan erreferentzia hori agertzen baitzen.

Gizarte Gaietako sailburuorde Fernando Consuegra Revuelta jaunak, Fermín Martín jaunari erantzuteko, Gizarte-hezitzaileen Elkargoak Aurreproiektuaren lantze-prozesuan egin duen lana aitortu du, eta ratioak kentzearen arrazoa justifikatu du, beste lege batzuetan baliabideen zenbaketa ez dela praktika oso zabaldua esanez. Gai horiek aurrerago, legearen arau-garapenetan, jasotzen direla argitu du. Bestalde, gizarte-hezitzailearen figura Aurreproiektuaren idatz-tzatiren batean gaineratzeko proposamena balioetsi daitekeela adierazi du, sistemaren barruan garrantzia duen figura profesionala baita.

Natalia Díez andrearen esku-hartzeari dagokionez, Oinarrizko Errentaren laguntzei buruzko proposamena edo horren osagarri buruzkoak Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailaren eskumenekoak direla argitu du, eta proposamena Gizarteratzeko Batzorde Iraunkorrera bidaliko dela adierazi du.

Euskadiko Pentsiodun eta Erretiratuaren Probintzia Elkarteetako Lurralde Federazioko kide José Manuel Odriozola Azurmendi jaunak oso ontzat balioetsi du legezko Aurreproiektu hau. Eta are gehiago balioesten du, inplikaturiko agente eta eskumen desberdinak direla-eta, adostasun batera iristeko zailtasuna kontuan hartuta. Dena den, adinduen eremuan zahartze aktiboaren sustapenerako eta mendetasunaren prebentziorako neurriei buruzko, eta gizarte- eta osasun-arloko gai buruzko testua faltan ematen dute. Nolanahi ere, beren jarrera positiboa da testuarekiko, legearen arau-garapenean beren eskaera zehatzei erantzuna emango zaiela espero baitute.

Gizarte Gaietako sailburuorde Fernando Consuegra Revuelta jaunak honako hau erantzun dio José Manuel Odriozola jaunari: Legezko Aurreproiektuaren ikuspuntua unibertsala da, eta, beraz, behar

importe de la misma cuando las unidades convivenciales tienen más de 4 hijos e hijas. Creo que en respuesta a esta situación se podría incluir en el artículo 16 de prestaciones económicas una ayuda económica compensatoria a familias con mayor número de hijos e hijas. Finalmente, y en nombre de la Federación de Padres y Madres Separadas, agradece la inclusión de las aportaciones que realizaron.

D. Fermín Martín del Colegio de educadores y educadoras sociales del País Vasco comparte su satisfacción por la elaboración de este Anteproyecto y por ello votan favorablemente al mismo. A pesar de ello transmiten su preocupación y desilusión porque ha desaparecido la referencia en el Anteproyecto a la figura del educador o educadora social y los ratios que se establecían como mínimos. Les gustaría recibir una justificación de las causas que han motivado este cambio, ya que en los borradores previos aparecía.

D. Fernando Consuegra Revuelta, Viceconsejero de Asuntos Sociales, en respuesta a D. Fermín Martín, reconoce la labor que desde el Colegio de Educadores y Educadoras Sociales se ha realizado en el proceso de elaboración del Anteproyecto y justifica la eliminación de los ratios de personal al no ser una práctica extendida en otras leyes la determinación cuantificada de los recursos. Aclara que estas cuestiones se recojen más adelante en los desarrollos normativos de la ley. Por otro lado considera que se puede valorar la propuesta de incorporar en algún apartado del Anteproyecto la figura de el o la educadora social puesto que se considera una figura profesional relevante dentro del sistema.

Respecto a la intervención de Dña. Natalia Díez aclara que la propuesta en relación con las ayudas de Renta básica u otras complementarias son competencia del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social y que se hará llegar la propuesta a la Comisión Permanente para la Inserción.

D. José Manuel Odriozola Azurmendi, de la Federación Territorial de Asociaciones Provinciales de Pensionistas y Jubilados del País Vasco, valora como muy bueno este anteproyecto de ley. Y lo valora aún más por la dificultad que entraña llegar a un consenso dadas los diferentes agentes y competencias implicadas. Con todo, desde el ámbito de las personas mayores echan en falta en el texto medidas de promoción del envejecimiento activo, prevención de la dependencia y cuestiones relativas al espacio sociosanitario. En todo caso, su posición es favorable al texto ya que esperan que el desarrollo normativo de la ley dé respuesta a sus peticiones concretas.

D. Fernando Consuegra Revuelta, Viceconsejero de Asuntos Sociales, responde a D. José Manuel Odriozola que la óptica del Anteproyecto de Ley es de carácter universal por lo que sólo se hace referencia a

beharrezkoa denean bakarrik egiten zaie erreferentzia talde zehatzei. Are gehiago, adierazitako ekintzak jada prestazioen eta zerbitzuen katalogoan gaineratuta daude, baina ez "talde" zehatz batentzat definituak.

D. "Harresiak Apurtuz" Etorकिन Laguntzarako GKEen Euskadiko Koordinakundeko kide Rigoberto Jara jauna herri-administrazioen hiru mailek abenduaren 10ean sinatutako akordioagatik pozten da, etorkinekin eta etorkinentzat lan egiten duten erakundeentzat Aurreproiektu aurrerakoia baitzen, eta aurrera aterako ote zen zalantza zuten. Legezko Aurreproiektuaren edukari dagokionez, immigrazioaren arloan oso pozik daude eskubidearen titularrei buruzko 3. artikuluekin (lehenengo bi idatz-zatietan), baina hirugarren idatz-zatia kezkatuaz aztertu dute, erroldatzeko epe zabalagoak eta baldintza gehigarriak ezartzeko aukera ematen baitu. Gai horiek argitzea eskatu dute, testuaren alde agertzeko.

Gizarte Gaietako sailburuorde Fernando Consuegra Revueltak honako hau argitu dio Rigoberto Jara jaunari: prestazio eta laguntza batzuen kasuan, horien ezaugarriak direla-eta, pertsona guztiei erroldatze-epe handiagoa eskatu ahal izango zaie. Eta baldintza gehigarriei dagokienez, adibide baten bitartez argitu du baldintza horiek ez direla inoiz etorkinak legez edo legez kanpo bizitzearekin lotutakoak izango, baizik eta beste mota bateko baldintzak izango direla (adina edo beste batzuk).

Ezintasun intelektuala dutenen aldeko Elkarteen Euskal Federazioko (FEVAS) kide Pedro Fernández García jaunak, ordeztzen duen erakundearen aldarrikapen bat irakurri du, Legezko Aurreproiektuaren aldeko eta aurkako puntuak azalduz; testua erakundearen web-orrian eskuragarri dago.

Osasun Sailaren Ikerlan eta Garapen Sanitarioko zuzendari Patricia Arratibel andreak, Osasun Sailak prozesuan egindako ekarpenak testuan gaineratu izana eskertu du.

Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluko kide Juan Fernández de Gamarra jaunak adierazi duenez, nahiz eta testua Kontseiluan landu ezin izan den, horrekin bat datozela eta 45. artikuluan "eremu soziosanitarioko lankidetzeta eta koordinazioari" buruz biltzen diren alderdiak gaur egun jaso ahal zirenak eta jaso behar zirenak direla ziurta dezake. Haren ustez, eremu soziosanitarioa gehiegi erregulatzea eta mugatzea ez litzateke ona izango, oraindik egituratze-prozesuan baitago. Bestalde, ez da sistema berri bat egituratu nahi, baizik eta dagoeneko existitzen diren bi sistema bat egin nahi dira; eta haien ustez aukera

colectivos concretos cuando es totalmente imprescindible. De hecho, las actuaciones señaladas están ya incorporadas en el catálogo de prestaciones y servicios, aunque no definidas para un "colectivo" en particular.

D. Rigoberto Jara de la Coordinadora de O.N.G.'s de Euskadi de Apoyo a Inmigrantes "Harresiak Apurtuz" se alegra del acuerdo firmado por los tres niveles de las administraciones públicas el pasado lunes 10 de diciembre ya que para las entidades que trabajan con y para personas inmigrantes se trataba de un anteproyecto progresista y tenían dudas de que saliera adelante. Respecto al contenido del Anteproyecto de Ley desde el ámbito de la inmigración están muy contentos con el artículo 3 de titulares del derecho en sus dos primeros apartados, pero analizan con preocupación el apartado tercero que deja la puerta abierta a establecer periodos de empadronamiento más amplios y la posibilidad de establecer requisitos adicionales. Solicitan aclaración de estas cuestiones para poder apoyar favorablemente el texto.

D. Fernando Consuegra Revuelta, Viceconsejero de Asuntos Sociales, aclara a D. Rigoberto Jara que en algunas prestaciones o servicios, por las características del mismo, pudiera ser que se solicitara para todas las personas un periodo de empadronamiento mayor a un año. Y en cuanto a los requisitos adicionales clarifica mediante un ejemplo que en ningún momento se refirirá a cuestiones relativas a la situación de residencia de las personas inmigrantes sino a requisitos de otro tipo: edad u otros.

D. Pedro Fernández García de la Federación Vasca de Asociaciones a favor de personas con discapacidad intelectual (FEVAS) lee una declaración de la entidad a la que representa, disponible en la página web de la misma, desgranando los puntos de acuerdo y desacuerdo en relación al Anteproyecto de Ley.

Dña. Patricia Arratibel, Directora de Estudios y Desarrollo Sanitario del Departamento de Sanidad agradece que en el texto se hayan incorporado las aportaciones hechas en el proceso por el Departamento de Sanidad.

D. Juan Fernández de Gamarra, del Consejo Vasco de Atención Sociosanitaria, señala que, aunque no se ha podido trabajar el texto en el Consejo, puede asegurar que hay concordancia con el mismo y que los aspectos recogidos en el artículo 45 sobre "Cooperación y coordinación en el ámbito sociosanitario" son los que podían y debían ser recogidos a día de hoy. Según su opinión no hubiera sido bueno regular en exceso y encorsetar el espacio sociosanitario, ya que está aún en proceso de configuración. Por otro lado, no se opta por la configuración de un nuevo sistema de gestión propio, sino por la confluencia de dos sistemas ya

zuzena da hori. Administrazioaren maila guztiek lortutako akordioa ere goraipatu du.

UGT - Euskadiko kide Emilia Malaga andreak adierazi du oro har testuarekin ados daudela. Akordioa ez da erabatekoa, baina garrantzitsua eta konplexua zen, eta, beraz, berri pozgarria da. Hala ere, bi gauza azpimarratu nahi ditu: alde batetik, bere ustez enpleguaren kalitatea kontuan hartzekoa da, eta, beraz, gai horretan diharduen batzorde bat eratu izanagatik pozten da. Beste aldetik, erroldak ematen duen eskubidearen titulartasuna aurrerapen bat dela dio; hala ere, ez dago segurtasunik, atzerritarrei buruzko araudia alda daitekeelako eta komunitatetik kanpoko atzerritarrentzat erroldatzeko aukera zaildu daitekeelako. Bestalde, interesgarria litzateke kasu horretan eskubide-titularretan gerta daitezkeen aldaketak aurreikusten saiatzea eta nolabait barnean hartzea.

Aldarte Elkarteko kide Ana Ureta Basañez andreak positiboki balioetsi du testua eta testuaren izaera inklusiboa, baina testuaren idatz-zati batzuetan sexu-aniztasunaren eta transexualitatearen perspektibaren erreferentzia argia egin daitekeela adierazi du. Aurkeztu dituen ekarpen zehatzak idazki bidez bidaltzeko konpromisoa hartu du.

CCOO Euskadiko kide Felisa Piedra andreak positiboki balioetsi du Aurreproiektua, gizarte-zerbitzuak lurralde guztietan homogeneizatzeko beharrari erantzuten diola uste baitu. Hala ere, sindikatu gisa, kudeaketa zuzeneko zerbitzu publikoen aldekoak dira, eta arduraren publikoko zerbitzu jakin batzuk ekimen pribatuarekin hitzartzeko aukera onartu dute. Zerbitzuen kudeaketa besterentzen denean arlo horretako langileen eskubide sindikalen eta enpleguaren kalitatea arautzea eta kontrolatzea eskatu dute. Gainera, Aurreproiektuarekin ados dagoela adierazi du, lantze-prozesuan egindako ekarpen gehienak (ez guztiak) jaso direlako, eta enpleguaren kalitaterako batzordea martxan jartzea pozgarria dela azaldu du.

Euskadiko Pentsiodun eta Erretiratuaren Probintzia Elkartetako Lurralde Federazioko kide José Manuel Odriozola Azurmendi jaunak arlo soziosanitarioko lankidetzaren eta koordinazioari buruzko 45. artikulua aipatu du, eta Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluari dagokionez, hirugarren sektorearen partaidetza onartzen duen Kontseilu irekia izan beharko litzatekeela adierazi du.

Euskal Autonomia Erkidegoko Urritu Fisikoen Konfederazio Koordinatzaileko kide Igor Navarro Break hainbat gauza adierazi ditu. Lehenik, bertaratuak zoriandu ditu lortutako akordioagatik,

existentes, opción acertada según su criterio. Se felicita también por el acuerdo alcanzado por los diferentes niveles de la administración.

Dña. Emilia Malaga de UGT - Euskadi señala que a grandes rasgos están satisfechos con el texto. El acuerdo no es total, pero el reto era importante y complejo, por lo que hay que alegrarse. Sin embargo, quiere dejar constancia de dos cuestiones: por un lado, considera que la calidad en el empleo es una cuestión relevante, por lo que se alegra de la creación de una comisión centrada en esta cuestión. Por otro lado, opina que la titularidad del derecho otorgada por el empadronamiento es ciertamente un avance, aunque no existe seguridad puesto que la normativa de extranjería puede modificarse y endurecer la posibilidad de incorporarse al padrón a las personas extranjeras extracomunitarias. Sería interesante, por tanto, intentar prever las modificaciones que se producirían en las y los titulares de derecho en tal caso y contemplarlo de alguna forma.

Dña. Ana Ureta Basañez, de la Asociación Aldarte, valora positivamente el texto y el carácter inclusivo del mismo, si bien opina que en algunos apartados del texto pudiera hacerse referencia explícita a la perspectiva de la diversidad sexual y la transexualidad. Se compromete a remitir por escrito las aportaciones concretas que ha expuesto.

Dña. Felisa Piedra, de CC.OO. Euskadi, valora positivamente el anteproyecto, ya que entiende responde a la necesidad de homogeneizar los servicios sociales en los diferentes territorios. Aunque como sindicato abogan por los servicios públicos de gestión directa, aceptando la posibilidad de concertación de determinados servicios de responsabilidad pública con la iniciativa privada, demandan que en la externalización de la gestión de los servicios se regule y se controle la calidad en el empleo y los derechos sindicales de las y los trabajadores del sector. Añade además su satisfacción porque, aunque no todas, pero sí bastantes de las aportaciones realizadas durante el proceso de elaboración han quedado recogidas y se felicita por la futura puesta en marcha de la comisión para la calidad en el empleo.

D. José Manuel Odriozola Azurmendi, de la Federación Territorial de Asociaciones Provinciales de Pensionistas y Jubilados del País Vasco, alude al artículo 45 de cooperación y coordinación en el ámbito socio-sanitario y en relación al Consejo Vasco de Atención Socio-sanitaria expone que debiera ser un Consejo abierto a la participación del tercer sector.

D. Igor Navarro Brea, de la Confederación Coordinadora de Personas con Discapacidad Física de la CAPV, expone diferentes cuestiones. Primero, felicita a las y los presentes por el acuerdo adoptado y



baina azpimarratu nahi izan du, erakundeek akordioari eman dioten babesa jendaurrean jarri den modu berean, hirugarren sektoreak prozesu honetan egin duen lana, eta aurkeztutako testuak jasotako babesa eta onarpen-maila handia ezagutzera eman behar direla. Bigarrenik, ordeztzen duen erakundearen ezintasuneko sektore-kontseilu bat sortzearen komenigarritasuna ez dutela ondo ulertzen adierazi du, zeharkako elementua baita, eta, beraz, ezintasun fisikoa hainbat kontseilutan ordezkatu behar dela uste dute, esate baterako haurren edota helduen kontseiluan. Hirugarrenik, bere ustez zerbitzuen eta prestazioen katalogoak zehatzagoa izan beharko luke, bakoitzaren definizioak eta helburuak azalduz. Azkenik, Jose Manuel Odriozolaren esku-hartzearen ildo beretik, Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluan erabiltzaileen erakundeek ordezkapen bat izatea ona litzatekeela uste du.

Bizkaiko Foru Aldundiko Gizartekintza diputatu Juan María Aburto jaunak une honetan lor zitezkeen akordio guztien artean Aurreproiektu hau akordio onena dela uste du, edo, bestera esanda, onura handiago baten mesedetan, hau da, adostasunaren mesedetan, alderdi guztiek zerbait alde batera uztea eragin du. Lan-prozesua bera balioetsi du, inplikaturiko sistemako alderdi guztiak hurbiltzea eragin baitu, eta politika egiteko eutsi behar zaion modu bat delako. Bukatzeko, testuaren alderdi nagusien zirriborro txiki bat egin du, eta testuak erakundeetan izan duen garapen "baketsu" bera legebiltzarrean izatea espero du.

Gizarte Gaietako sailburuorde Fernando Consuegra Revuelta jaunak, Igor Navarro jaunari erantzunez, ezintasunen sektore-kontseilua dagoeneko existitzen zen eskaera zela eta beste sektore-kontseilu batzuetan parte hartzearekin bateragarria dela adierazi du. Era berean, katalogoko prestazioak eta zerbitzuak araugarapenean gehiago zehaztuko direla adierazi du, eta, alderdi sozialak Aurreproiektuaren lantzean parte-hartze aktiboa izateari dagokionez, Kontseiluak jardun publiko bat egin dezakeela esan du.

Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluko kide Juan Fernández de Gamarra jaunak, Igor Navarro jaunaren eta Jose Manuel Odriozola jaunaren esku-hartzei erantzunez, argitu du hirugarren sektoreak Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluan izan dezakeen partaidetza irekitzea edo ixtea ez dela bere nahiz Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluaren arduraren. Bestalde, Osasun Sailean erakunde horiek parte hartzeko eta ekarpenak egiteko modu desberdinak daudela gaineratu du.

pone el acento en la necesidad de que, de la misma manera que se ha hecho público recientemente el apoyo de las instituciones al acuerdo alcanzado, se visibilice también la importante labor que ha desempeñado en este proceso el tercer sector, así como el respaldo y el alto grado de aceptación del texto presentado. En segundo lugar señala que desde su entidad representada no tienen clara la conveniencia de crear un consejo sectorial de discapacidad porque se trata de un elemento transversal, por lo que sí entienden que deben representar a la discapacidad física en diferentes consejos como el de infancia y mayores. En tercer lugar opina que en el catálogo de servicios y prestaciones se debiera dar mayor grado de concreción de las mismas con definiciones y objetivos perseguidos por cada uno. Por último, en línea con la intervención de D. Jose Manuel Odriozola, cree que sería bueno una representación de las entidades de personas usuarias en el Consejo Vasco de Atención Sociosanitaria.

D. Juan María Aburto, Diputado de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia, valora este Anteproyecto como el mejor acuerdo posible que se podía tomar en este momento y entre todas y todos, es decir, que ha supuesto cesiones por todas las partes en aras de llegar a un bien superior como es el consenso. Valora el proceso de trabajo en sí mismo puesto que ha permitido un acercamiento entre las partes implicadas del sistema y porque supone una forma de hacer política que debe mantenerse. Concluye realizando un pequeño esbozo de los principales aspectos del texto y deseando que el texto tenga un desarrollo "pacífico" en el parlamento al igual que lo ha tenido institucionalmente.

D. Fernando Consuegra Revuelta, Viceconsejero de Asuntos Sociales, agradece la intervención de D. Juan María Aburto y en respuesta a D. Igor Navarro señala que el consejo sectorial de discapacidad era una demanda existente y que no es incompatible con participar en otros consejos sectoriales; que será en el desarrollo normativo donde se produzca un mayor nivel de concreción de las prestaciones y servicios del catálogo; y en relación con visibilizar la participación activa de la parte social en la elaboración del Anteproyecto y su respaldo a éste, considera que pudiera hacerse algún acto público desde el Consejo.

D. Juan Fernández de Gamarra, del Consejo Vasco de Atención Sociosanitaria, en respuesta a las intervenciones de D. Igor Navarro y D. José Manuel Odriozola aclara que ni a él ni al Consejo Vasco de Bienestar Social le corresponde abrir o cerrar la participación del tercer sector en el Consejo Vasco de Atención Sociosanitaria. Por otro lado añade que en el Departamento de Sanidad existen diferentes formas de participar y de aportar desde estas entidades.

Oñatiko Udaleko Lourdes Idoiaga andreak, EUDEL-en izenean, erakundeek nahiz hirugarren sektoreak balioetsu hartzen duen akordio hori lortzeko egin duten ahalegina nabarmendu nahi du. Gainera, akordio batera iristeko lan-paradigma gisa jarraitu den prozesua balioetsi du.

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko kide Igor Mera jaunak, testu hau egin arte jarraitu den partaidetza-prozesua balioetsi du, eta testua eskubideen eta prestazioen arloan aurrerapen argizat hartu du. Hala ere, aurrerapentzat hartzen dituen bi puntu azaldu nahi ditu: alde batetik, ahal den neurrian sarreren bermerako politika eta zerbitzu eta prestazio teknikoak banandu behar direla, esate baterako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan Oinarrizko Errentaren arloko eskaerei ez erantzunez. Beste aldetik, eta baterako ordainketari dagokionez, pertsona guztientzako zerbitzuak eta prestazioak bermatu behar direla uste du, eta, beraz, atalase ekonomiko batzuen kasuan, esate baterako Oinarrizko Errentaren kasuan, doako arreta eman beharko litzatekeela.

Ezintasun intelektuala dutenen aldeko Elkarteen Euskal Federazioko (FEVAS) kide Pedro Fernández García jaunak adierazi du hirugarren sektoreak lan-prozesu guztietan partaidetza aktiborako joera duela, plangintzan nahiz ebaluazioan, gobernantzako klabeen eta parte-hartzean oinarritutako demokrazia-klabeen.

Gaixo Psikikoen eta haien Senideen Euskadiko Federazioko (FEDEFES) kide Rosalía Sánchez andreak positiboki balioetsi du Aurreproiektua, eta bere erakundeak egindako ekarpenak gaineratu izana eskertu du.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuaren Ezinduen eta Adinduen Laguntzako zuzendari nagusia Juan Ramón Larrañaga jaunak, egindako ahaleginagatiko eta horren emaitzagatiko poza adierazi du. Bere ustez denon partaidetzan oinarritutako metodoari jarraitu behar zaio.

Kultura Saileko kide Jesús Antonio Pérez Arrospide jaunak ere zorionak eman ditu, eta bere ustez, Kontseiluan akordio hau eta adostasuna lortu dela Legebiltzarrari jakinaraztea ona litzateke, horrek guztiak EAEko gizarte-zerbitzuen politikan interesa duten alderdi guztien bateratasuna eta adostasuna adierazten baitu.

Gizarte Gaietako sailburuorde Fernando Consuegra Revuelta jaunak hitz egiteko bere txanda amaitutzat eman du, eta proposamen bat aurkezteko konpromisoa hartu du, herritarrei osoko bilkura honetan nagusitu den iritzia jakinarazteko moduari buruz, hain zuzen ere, Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluaren gizarte-arloan, eta oro har esanda, hirugarren sektorean

Dña. Lourdes Idoiaga, del Ayuntamiento de Oñati y en nombre de EUDEL, quiere reconocer el esfuerzo realizado tanto por las instituciones como por el tercer sector para llegar a este acuerdo que considera valioso. Además valora el proceso seguido como paradigma de trabajo para llegar a consensos.

D. Igor Mera, del Consejo de la Juventud de Euskadi, valora el proceso participativo llevado a cabo hasta llegar a este texto que considera un claro avance en derechos y prestaciones. No obstante, quiere transmitir dos puntos en los que entiende que se ha de avanzar: por un lado, que debe tratar de separarse en la mayor medida posible la política de garantía de ingresos de los servicios y prestaciones técnicas, por ejemplo no atendiendo a las demandas de Renta Básica desde los Servicios Sociales de Base. Por otro lado y en relación con el copago considera que se deben asegurar los servicios y prestaciones para todas las personas por lo que bajo unos umbrales económicos, como puede ser la Renta Básica, debiera prestarse una atención de carácter gratuito.

D. Pedro Fernández García, de la Federación Vasca de Asociaciones a favor de personas con discapacidad intelectual (FEVAS), transmite que el tercer sector tiene vocación de participación activa en todos los procesos de trabajo, desde la planificación hasta la evaluación, en clave de gobernanza y democracia participativa.

Dña. Rosalía Sánchez, de la Federación de Euskadi de Asociaciones de Familiares y Enfermos Psíquicos (FEDEFES), valora positivamente el Anteproyecto y agradece la inclusión de las aportaciones realizadas desde su entidad.

D. Juan Ramón Larrañaga, Director General de Atención a la Dependencia y Personas Mayores del Departamento de Política Social de la Diputación Foral de Gipuzkoa, transmite su satisfacción con el esfuerzo realizado y con el resultado. En su opinión la participación de todas y todos es el método a seguir.

D. Jesús Antonio Pérez Arrospide, del Departamento de Cultura, se suma a las felicitaciones y cree que es bueno que se transmita al parlamento que existe este acuerdo y consenso en el Consejo, con todo lo que éste representa de sintonía y aceptación por parte de todas las partes interesadas en la política de servicios sociales en la CAPV.

D. Fernando Consuegra Revuelta, Viceconsejero de Asuntos Sociales, da por concluido el turno de palabra y se compromete a presentar una propuesta de cómo trasladar a la ciudadanía el sentir manifestado en este pleno respecto a la necesidad de visibilizar el papel jugado por las organizaciones representadas en la denominada "parte social" del Consejo Vasco de

ordezkatuta dauden erakundeek lege-aurreproiektua prestatzeko prozesuan izan duten papera, aurkeztutako testuak jasotako babesa eta onarpen-maila handia jendaurrean jarri beharra dela eta.

Eztabaida bukatu eta bertaraturakoei gai horri buruz galdeturik, aho batez onartu da Gizarte Zerbitzuei buruzko Legezk Aurreproiektua.

ELA Sindikatuko Amagoia Lasagabaster andreak, nahiz eta botorik eman ez Kontseiluaren kide formala ez izateagatik, jasota utzi nahi du ELA sindikatuak ez duela onzat ematen Gizarte Zerbitzuen Legearen Aurreproiektuaren testua.

2. puntua.- Informazioa:

Gizarte Gaietako sailburuorde Fernando Consuegra Revuelta jaunak Kontseiluaren hurrengo ohiko bilkuran gizarte zerbitzuen seigarren txostena landuko dela jakinarazi du, eta txostenaren paperezko kopia bana eman zaie ordezkari guztiei.

3. puntua.- Galde-eskeak:

Euskal Autonomia Erkidegoko Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Kontseiluaren Idazkaritza Teknikoko kide Javier Pérez Pérez jaunak erabaki bat hartzea eskatu dio Gizarteratzeko Batzorde Iraunkorrari, ordeztan duen Kontseiluak Batzorde horretan hitzarekin baina botorik gabe parte hartzen jarrai dezan.

Gizarte Gaietako sailburuorde Fernando Consuegra Revuelta jaunak, Kontseiluaren adostasunarekin, eskaera hori Gizarteratzeko Batzorde Iraunkorrari helaraztea proposatu du.

Bestelako izapiderik gabe, bilkura 13:30ean amaitutzat eman da.

SECRETARIO
IDAZKARIA

Bienestar Social y, de forma más global por el tercer sector, en el proceso de construcción del anteproyecto de ley, así como el alto grado de sintonía existente con el contenido del texto final aquí presentado.

Finalizado el debate y preguntados las personas presentes al respecto, se acepta favorablemente y por unanimidad el Anteproyecto de Ley de Servicios Sociales.

Dña. Amagoia Lasagabaster del Sindicato ELA aunque no vote porque no es miembro formal del Consejo quiere dejar constancia que desde ELA no se acepta favorablemente el texto de Anteproyecto de Ley de Servicios Sociales.

Punto 2. Informaciones:

D. Fernando Consuegra Revuelta, Viceconsejero de Asuntos Sociales, informa de que en la siguiente sesión ordinaria del Consejo se trabajará el sexto informe de servicios sociales y se entrega un ejemplar en papel a todas y todos los presentes.

Punto 3. Ruegos y preguntas:

D. Javier Pérez Pérez de la Secretaría Técnica del Consejo para la promoción integral y participación social del Pueblo Gitano en el País Vasco solicita al Consejo un acuerdo que inste a la Comisión Permanente para la Inserción para que siga participando con voz pero sin voto en dicha Comisión el Consejo al que representa.

D. Fernando Consuegra Revuelta, Viceconsejero de Asuntos Sociales, con el acuerdo del Consejo propone trasladar esta solicitud a la Comisión Permanente para la Inserción.

Sin más trámite, se da por finalizada la sesión a las 13:30 horas.

VºBº EL PRESIDENTE
PRESIDENTEAREN ONIRITZIA